



## ATAZA - AIAKO HARRIA

### PROIEKTUAK.EUS - Gure naturagune babestuak



#### Lanaren nondik norakoak:

- Hiru grafiko eta testu-dokumentu bat egin behar dituzue, airearen hiru parametro aztertzeko: 2,5 mikroi baino gutxiago duten partikula solidoak, 10 mikroi baino gutxiago dutenak eta airearen tenperatura.
- Horretarako, sartu “[Eguneko datuak](#)” izeneko atalean, eta aukeratu Lezoko estazioa, batetik, eta aztertu beharreko parametroa, bestetik (PM<sub>10</sub>, adibidez). Deskargatu azken sei hilabetetako datuak, egunez egun neurtutakoak, xls formatuan parametro bakoitzerako.
- Deskargatutako datuak datu-base batean ireki. Lerro bakoitzean, eguneko datua azaldu beharko da, eta zutabe bakoitzean, partikula solidoen kontzentrazioa ( $\mu\text{g}/\text{m}^3$ ) edo tenperatura ( $^{\circ}\text{C}$ ).
- Eguneko datuak horrela antolatu ondoren, adierazi parametro bakoitzaren emaitzak zutabe-grafiko batean, Zumaiako parkearen adibidean bezala. Tenperaturarako, nahikoa izan daiteke lerro-diagrama egitea.
- **PM<sub>2,5</sub>**. Legeak 25 mikrogramotan ezarri du gehienezko balioa. Kalkulatu Lezon neurtu den kontzentrazioarik handiena kantitate horren zer ehuneko den. Adibidez, noizbait azken 6 hilabetetan 30 mikrogramo neurtu izan balira, gehienezko balioaren % 120 izango litzateke, hau da, onargarria baino % 20 gehiago.
- **PM<sub>10</sub>**. Legeak 40 mikrogramotan ezarri du gehienezko balioa. Egin 2,5ekoekin egindako ariketa bera eta ehunekoak kalkulatu.
- Testu-dokumentu batean, adierazi zein izan den baliorik handiena eta zein txikiena partikula-tamaina bakoitzerako. Adierazi baliorik handiena zer ehuneko den legeak ezarritakoarekin konparatuta, partikula-tamaina bakoitzerako. Idatzi kalkuluak.
- Idatzi testuan era laburrean zein izan ohi den partikula horien jatorria eta zer eragin izan dezaketen osasunean, kontzentrazio altuak arnastuz gero. Floran edo faunan ere eraginik izan badezakete, idatzita utzi.

- Osatu testua taldean eta irakasleari erakutsi lehen zuzenketa egin dezan. Egin beharreko zuzenketak egin ondoren, prestatu behin betiko testuak eta audioak grabatu.